

**FUNZIONAMENDU ARAUAK- Ospitalizazioko Unitatea**  
**Kirurgia Orokorreko Zerbitzua (Gibel, behazun eta pankreako atala)**
**Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA**
**MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA**

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitateetik borondatez irtetekoan, eskatzen dizugu osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Gogoratu. Ospitalea tabakorik gabeko gunea da.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lur gabekak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

**EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA**


- Interbentzioaren ondoren: zirujauaren informazioa emango dizu 2. solairuko operazio-geletako sarreran.
- Interbentzioa urgentea bada: 1. solairuko operazio-gelako sarreran emango da informazioa.
- Anestesia ondoko bizkorketa 2. solairuan egingo da (ABU).

**MEDIKUAREN IKUSTALDIA**


- Egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik, 10:00etatik 12:00etara gutxi gorabehera.
- Bisita hasterakoan megafoniaz abisua emango dizugu bisitari guztiak irteteko eta 12:00ak arte ezin izango zarete unitatera sartu.
- Bisita bitartean medikuak zure osasun-egoeraren berri emango dizu.

**FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA**

- Astelehenetik ostiralera 12.00etan, unitateko sarreran dagoen ataleko medikuaren bulegoan.

**OTORDUAK**


9:30ean Gosaria  
 13:30ean Bazkaria  
 17:30ean Merienda  
 20:30ean Afaria

**BISITAK**

- 14:00etatik 21:00etara.
- Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.** Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke. Medikuen bisitan zehar, 10:00etatik 12:00etara izan ezik. Tarte horretan unitatean ez de seniderik onartuko.

**BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK**


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreraren emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).


**TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.


**KAFETEGIA** Orduategia: 7:30etik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen


**OSPITALEKO ALTA.** Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri.

Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

**Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.**


**ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA**

Harremanetarako Telefonoa: 618 75 14 15.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Orduategia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).